

EUSKAL FORU ZUZENBIDE ZIBILA ETA ARABAKO ARAMAIO HERRIA¹

1. Foru-legea zer den

Askoren ustez, foru hitzak aspaldikoaren sunda dauka, iraganeko zerbait balitz bezalaxe, alegia, gaurkotasun gutxikoa eta joandakoaren izana daukana.

Behinola izan zirela halakoak -gehituko du baten batek-baina euskaldunok izan bagenituen ere, indargabeturik geratu ziren 1876. urtean, gerra batzuen ondorenez.

Hala ere, aurrekoa azaldu arren, erabateko egia denik ezin esan. Izatez, foruak ezabatu zirenean ere, indarrean geratu ziren Euskal Herriko Bizkaian, Arabako alderdi batean eta Nafarroan, zuzenbide pribatuko foruak. Zehatz esateko, Bizkaiko eta Arabako kasuetan, oinordetza, ondasun tronkalekoa eta senar-emazteen arteko ondasun-araubidea barruratzten zituen lege idatziek irauin egin zuten. Gipuzkoan, aldiz, lege idatzirik gabe, ohiturazko manuak ziren nagusi halako gaietan.

¹ Aramaion eta bertako udalak gonbitea luzatuta, egileak eman zuen hitzaldia, 2012. urteko otsailaren 17an. Aurkezlea Patxi Uribarren aramaioarra izan zen. Haren hitzaldia ere KARMEL zenbaki honetan irakur daiteke.

Hona, bada, lehen hurbilketa, foru-legea aipatzen denean zer esan nahi den bistaritzen duena. Beraz, historiatic datorrena, indarrean dagoena eta gure artean ere aplikagarria dena, zuzenbide pribatuko arloan.

2.- Bizkaiko Foru-zuzenbide zibila, horren jatorria

Non zegoen, beraz, idatzita foru-lege hori? Guri dagokiguzenez, esan dezagun argi historiak ematen digula argibidea.

Erdi Arotik datorren hariari eutsiz, Bizkaiak ondu zuen 1452. urtean harako Foru idatzia (*Foru zaharra* deitzen dena), gerora ere eguneratua izan zena 1526. urtean (*Foru berria* deitzen dena).

Foru berri horretara biltzen dira hainbat xedapen, lege, arau eta gainerakoak, izaera desberdinekoak. Euren artean, ezbairik gabe, lege zibilak (testamentuak, tronkaleko ondasunak, oinordetzak, oinordekoa aukeratzeko askatasuna, senar-emazteen arteko ondasunen komunikazioa...) eta halakoak dira 1526. urtetik XX. mendera arte, indarrean egon direnak eta egun ere, indarrean daudenak.

Gerokoak dira Espainiako Kode zibila (1888-1889), Bizkaiko edo Arabako Foru bilduma (1959) eta Eusko Legebiltzarren 3/92 Legea, Gernikako Estatuak berriro ere ekarri baditu euskaldunon eskura, behinola herrialde historikoen Batzar Nagusiek izan zituzten ahalmenak, foru zuzenbide zibilari dagokionez.

3. Zergatik Aramaion?

Aurrekoak gorabehera, norbaitek esan dezake ea nola den aplikagarri Bizkaiko Legea Aramaio herrian, Aramaio Arabako herria bada.

Kontuak kontu, arin ahazten da historiaren ekarria, Aramaio mendeetan izan baitzen Bizkaiko partaide, bizkaitar elizateen parean eta eskubide osoz.

Elizate izanik (hau da, eliz atean batzen zen herria) foru-zuzenbidea zuen aplikagarri eta horren barruan foru-zuzenbide zibila ere bai. Areago, Aramaio herriko auzoak, *elizate* edo *anteiglesia* izena erabili dute luzaroan.

Urteak urte, erabaki sendoa hartu zuen Aramaio herriak, Arabako herrialdearekin bat egiteko. 1489. urteko urtarrilaren 9an, harako eskritura sinatu zutenean, hauxe idatzi zuten:

Iten: que se entienda que ecepto en lo tocante á las dicha Leyes é Cuaderno de Hermandad que en todo lo al á la dicha tierra é Valle de Aramayona é vecinos della, les finquen á salvo sus privilegios, libertades, esenciones, buenos usos y costumbres que tienen, é no les pare perjuicio, salvo solamente como dicho es, para en las cosas é casos tocantes é concernientes á la dicha Hermandad é Leyes é Capítulos é Ordenanzas della.

Hona, bada, zergatia, historian oinarria duena eta Aramaio herriari ekarri ziona Bizkaiko foru-zuzenbide zibila, egun ere, indarrean dagoena Aramaio udalaren eremu osoan.

4.- Aramaio, herri euskalduna: foru berbak euskaraz

Zerbait bada ezaugarri Aramaion, hori da jatorrizko euskara eta, horrekin batera ere, orain arte esandakoaren arabera, foru-zuzenbide zibila.

Legea eta hizkuntza, hizkuntza eta legea. *Ubi societas, ibi ius*, hala esan zuten antzinako erromatarrek. *Herrik bere lege, etxek bere aztura*, erantzungo zioten, ziur asko, euskaldunek, aspaldiko euskal errefrauek erabiliz. Bi horiek dira, izan ere, euskara eta foru zuzenbide zibila, Aramaio bereizten duten bi arrazoi funtsezkoenak.

Hala ere, ba al dago foru-legeetan euskararen aztarnarik? Ohituta gaude legeak bere mezua gaztelaniaz ematen, herri euskaldunak ahotan izan dituen eta oraindik ere badituen euskal berba asko ahaztuz eta zokoratuz.

Foruak ekarri zituen eta ekarri ditu halakoak: *alkarpoderosoa, testamentua, senipartea, bilburukoa, tronkaleko ondasunak, ermandadeko testamentua, bide-zorrak, kontratua...* ugari dira eite horretakoak euskararen baitan, gorde beharrekoak eta zalantzarik ez, ezin saihestuzkoak.

5.- Egungo foru-legea, Eusko Legebiltzarraren 3/92 Legea

Aspalditik datorren ibilbidea betez, Gernikako Estatutuak (1978) Euskal Autonomia Erkidegoarentzat gorde zituen foruzuzenbide zibilaren gaineko ahalmenak.

Honatx, bada, Gernikako Estatutuaren testua:

10.5 Euskal Herria osatzen duten Herrialde Historikoen Zuzenbide Zibil Foral eta berezi -idatzia nahiz ohizkoaren- kontserbazio, aldatze eta bilakaera, bai eta beraren indarraren lurralde-barrutiaren finkapena ere.

Horri lotuta, Eusko Legebiltzarrak onetsi eta aldarrikatu zuen 3/1992 LEGEA, *uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa.*

Lege horren barruan bigarren liburuak, Arabako foru zibilaz dihardu eta bigarren idazpuruan, Aramaioko herriari buruzko aipamena dator, bertan zein den lege zibil aplikagarria zedarritzatuz:

146. atala.- 1. Laudio eta Aramaio udalerrietan Bizkaiko Forua da ezargarri, Bizkaia Lurralderako bereziki ezargarri izan daitekeen lurralde-eremuaren zehaztapenari dagozkion erabakiak salbu.

Bide beretik, hiru arlo nagusi daude hortxe jokoan, gerogarenean garatuko direnak:

1. Etxe/baserri lurren salerosketa/oinordetzan.
2. Testamentua egiteko moduak: *alkarpoderosoa* eta ermandadeko testamentua.
3. Senar-emazteen arteko ondare-harremanak.
4. Bide-zorrak.

6.- Foru-zuzenbide zibilaren arabera, nor dira aramaioarrak?

Hala eta guztiz ere, hurrengo galdera berehala etor daiteke Aramaioko herritarren gogora: lege hau, bertan bizi diren guztiei aplikatzen zaie? Kanpoan bizi diren aramaioarrak zer? Kanpotik Aramaio herrira etorri direnak zer?

Hartara jarrita, egin dezagun banakako sailkatzea eta esan dezagun hasieratik bertatik hori araututa dagoela Espainian auzotasun zibila kontzeptuaren barruan (Kode Zibilaren 13, 14, 15 eta 16. artikuluetan). Ohiko egoitzarekin dauka horrek zerikusia eta ez, nahitaez, auzotasun administratiboarekin.

Horretara, gerta daiteke Aramaiotik kanpo bizitzea eta Aramaioko lege zibila izatea. Alderantziz ere gerta daitekeela ezin ukatu.

Batera zein bestera, kontuak egoki sailkatzeko, Espainiako Kode Zibilaren 14. artikulua aintzat hartu behar da.

Llabur esanda, horretan eman daitezke horko nondik norakoak, Aramaioko inguruabarrak betez:

1. Aramaion jaio eta bertan bizi direnak, foru-zuzenbide zibila dute aplikagarri.
2. Aramaion jaio, aldi batez bertan bizi eta gero, kanpora bizitzera doazenak, honetara:

- 2.1. Kanpoan bizi, bertako udaletxean inskribatu eta hamar urte pasa badira, besterik gabe, galdu egiten dute foruzuzenbide zibila.
- 2.2. Kanpoan bizi, bertako udaletxean inskribatu eta hamar urte pasa aurretik, hala eskatzen badute, gorde egiten dute foruzuzenbide zibila, beste herri horretako herri-tarrak izan arren.
- 2.3. Kanpoan bizi, bertako udaletxean inskribatu eta bi urteren barruan, herri berri horren lege zibila eskatuz gero, galdu egiten da foruzuzenbide zibila.
Halako adierazpenak (gordetzeko edo galdetzeko) Erregistro zibilean (Bake epaitegian) egin behar dira eta behin eginez gero, betiko irauten dute.
3. Kanpoan jaio, aramaioar batekin ezkondu eta Erregistro Zibilean (Bake Epaitegian) eskatuz gero, foruzuzenbide zibila eskuratu dezake eskaleak.
4. Gurasoak aramaioarrak badira, seme-alabek ere foruzuzenbide zibila izango dute.
5. Aita/ama aramaioarra izan eta beste gurasoa ez, seme-alabek zer? Non jaio (Aramaion/kanpoan) eta horren araberak izango dute foruzuzenbide zibila.
6. Beste estatu bateko naziotasuna duenak, eta Espainiako naziotasuna eskuratu duenak, foruzuzenbide zibila izango du, hala eskatzen bada eta Aramaion bizi bada.

7.- Foruzuzenbide zibil hori, zer eta non?

Egun, lehen esan den moduan, oinordetza/salerosketa, tronkalitatea eta senar-emazteen arteko ondasun-erregimena dira, gaingiroki, foruzuzenbide zibilaren behinolako edukiak.

Sarritan gertatzen da, nolana ere, horien gaineko informazioa jaso nahi izatea eta aurkitu ezina. Nora jo, non eskatu eta

eskuratu horri buruzko xehetasunak? Egun, interneten, esku-
-eskura dira arlo honen gaineko bi informazio-iturri: lehena da
www.forulege.com; bigarrena, aldiz, www.avd-zea.com.

Bitzuok *Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademiak* onduak eta moldatuak. Lehena da, izan ere, foru-zuzenbide zibilari beren-beregi dagokiona eta bertan aurkitu daitezke esparru horren legeak, jurisprudentzia, bibliografia, formularioak, kontsultak egiteko moduak, galde-erantzunak eta abar. Bigarrenean, Akademiak dituen baliabide orokorrak eskaintzen dira eta bertan foru-zuzenbideari buruzkoak ere.

Gaztelaniaz zein euskaraz, horra hor bi erreferentzia albo-raezinak, zer non bilatzeko eta aurkitzeko foru-zuzenbide zibilaren arloan.

8.- Foru-zuzenbide zibila, arloz arlo

Edozein modutan ere, garrantzitsua izan daiteke zehaztea zertan mamitzen diren horiek. Alor jakin batzuetakoak dira, izatez, foru zuzenbide zibil horren erakundeak. Aipagarriak dira, besteak beste, familiaren barneko lotura baserriarekin eta etxearekin, historian zehar tronkalitatea deitu dena; oinordetza-askatasun zabala, Aramaion egiten diren testamentu eta gainerakoetan; *alkarpoderosoa*, senar-emazteek eta gainerakoek elkarri ahala emateko aukera, eurak hil ondoren ere, etxeko ondarea osorik gorde dadin belaunaldiz belaunaldi; oinordetza-itunak edo *kontratuak* gurasoen eta ondorengoen artean, guztiak bizi-rik daudela egiten dena, familiaren ondareak izan dezakeen etorkizuna bermatzeko eta senar-emazteen arteko *foru-komunikazioa*, ondasun guztiak erkide egiten dituen, seme-alabarik izanez gero.

Arloz arloko langintza horretan, zer esanik ez, esanguratsua gerta daiteke foru-zuzenbide zibila eta gainerako arabarrek duten zuzenbidea erkatzea, modu grafiko baten bidez, Ez ahaztu,

bestalde, Arabako herrialdean hiru lege zibil direla aginduzkoak. Aramaion eta Laudion, Bizkaiko foru-zuzenbide zibila, gizaldien joan-etorriek moldatu dutena; Aiaran, bertako foru-zuzenbide zibil berezia, historiaren fruitu dena eta gainerako Araban, Espainiako Kode Zibila, XIX. mendean ezarria Gaztelako zuzenbidearen orde.

8.1. Tronkalitatea

Kode Zibila (Arabako herrialdean, Aramaio, Laudio eta Aiaran izan ezik)	Bizkaiko foru-zuzenbide zibila (Aramaion)
<p>Norbanakoen eskubide-irizpidea Ondasun tronkalik ez dago.</p>	<p>Familiaren eskubide-irizpidea Ondasun higiezinak edo ondasunon gaineko eskubideak dira ondasun tronkalak. Ondasunok saldu edo jarauntsiz eskualdatzean ondasunon tronkaleko senideek (ondorengoek, aurrekoek eta albokoek) lehentasuna daukate. Ez, ordea, alarguna, hori ez baita tronkeroa.</p> <p>Edozelan ere, tronkaleko jabetza-irizpideak ez dauka eraginik hiri-lurretan (pisuak esaterako) edo hiri-lur bihurtu diren ondasun higiezinetan, horrelakoak edonori saldu dakizkioke-eta (saldu bai baina jarauntsian eman ez)</p>

8.2.- Oinordetza

Kode Zibila (Arabako herrialdean, Aramaio, Laudio eta Aiaran izan ezik)	Bizkaiko foru-zuzenbide zibila (Aramaion)
<p>Testamenturik gabe</p> <p>Ondorengoek lehenengo, eta ondorengorik ez badago, aurrekoek; gero alargunak, eta alarguna bizirik ez badago hildakoaren neba-arrebek eta euron seme-alabek eskuratuko dute oinordetza. Holako inor ere ez badago, Estatuak eskuratuko du oinordetza.</p>	<p>Testamenturik gabe</p> <p><i>Tronkaleko ez diren ondasunetan</i> ondorengoek lehenengo eta aurrekoek gero, ostean alargunak eta alarguna bizirik ez badago hildakoaren neba-arrebek eta euron seme-alabek eskuratuko dute oinordetza. Holako inor ere ez badago, Arabako Foru Aldundiak eskuratuko du oinordetza.</p> <p><i>Tronkaleko ondasunetan</i> ondorengoek lehenengo eta tronkaleko familiako aurrekoek hurrengo. Holakorik ez balego, tronkal bereko neba-arrebek eta euron seme-alabek eta, azkenik, tronkaleko seniderik ez badago, alargunak. Hurrenkera horretan eskuratuko da oinordetza. Holako inor ere ez badago Arabako Foru Aldundiak eskuratuko du oinordetza.</p>

Testamentuarekin	Testamentuarekin
<p>Ez dago askatasun osoz testamentua egiterik.</p> <p>1/3 nahitaezko eta ondorengo jaraunseen artean, guztiei berdin banatuko zaie (seniparte hertsia); beste 1/3 nahitaezko eta ondorengo jaraunseen artean askatasunez banatzeko (hobekuntza herena) eta beste herena (xedapen askea) askatasun osoz banatzeko.</p> <p>Ondorengorik ez badago, 1/2 nahitaezko aurrekoen artean, guztientzat berdin banatzeko eta beste erdia askatasun osoz (edonori) banatzeko.</p> <p>Nahitaezko jaraunselek jarauntsitik dagokiena testamentu egilea hiltzen denetik bertatik eska dezakete.</p>	<p>Testamentu askatasun osoz egin daiteke.</p> <p>4/5 nahitaezko eta ondorengo jaraunseen artean askatasunez banatzeko (seniparte). Geratzen den 1/5 askatasunez erabiltzeko (xedapen askea).</p> <p>Ondorengorik ez badago, 1/2 nahitaezko aurrekoen artean askatasunez banatzeko eta beste erdia askatasunez edonori (askatasun osoz) banatzeko.</p> <p>Tronkaleko ondasunetan oinordekoen hurrenkera gorde behar da.</p> <p>Nolanahi ere, <i>eskuorde-bidezko testamentua edo alkarpoderosoa</i> egiteko aukera dago, alarguna egoe-ra hobean geratu dadin. Testamentuan ezkontide-eskuordeko izendatzen dira biak. Horren ondorenez, bietarikoren bat hiltzen denean, alargunak hildakoaren jarauntsi-ondasun guztien gozamina eta administrazioa eskuratzen ditu, jaraunse izango direnek ezin dutela horren ordainik eskatu. Alargunak, hala nahi badu, zati baten edo osorik banatu dezake jarauntsia, edo, bestela, hil arte ezer ez banatzea ere erabaki dezake.</p> <p>Bestalde, guztiz egingarria da ezkontideen artean <i>ermandadeko testamentua</i> egitea, alegia, bi ezkontideek batera eginiko testamentua.</p>

8.3.- Ezkontzaren ondasunen araubidea

Kode Zibila (Arabako herrialdean, Aramaio, Audio eta Aiaran izan ezik)	Bizkaiko foru-zuzenbide zibila (Aramaion)
<p>Irabazpidezko araubidea</p> <p>Ezkontide bakoitzak ezkondu aurretik bereak zituen ondasunak edo ezkondu aurretik zein ostean jarauntsiz, dohaintzaz edo salerosketaz jasotakoak ezkontide horrenak baino ez dira. Ezkondu ostean eskuraturiko enparauko ondasunak ezkontide bienak dira.</p> <p>Ezkontide bakoitzak ditu bere ondasunen administrazio eta xedapen ahalmenak. Bion ondasunetan, aldiz, bion adostasuna da premiazkoa.</p>	<p>Foru-komunikazioaren araubidea</p> <p>Ondasun guztiak dira ezkontide bienak, bakoitzak ezkondu aurretik zituenak, zein ezkondu ostean eskuratutakoak. Horretarako beharrezkoa da ezkontide bat hiltzen denean, seme-alaba erkideak izatea.</p> <p>Bi ezkontideen adostasuna behar da ondasunok xedatzeko, nahiz ezkontide batenak izan, nahiz bi-bionak.</p>

8.4.- Bide-zorrak

Kode Zibila (Arabako herrialdean, Aramaio, Audio eta Aiaran izan ezik)	Bizkaiko foru-zuzenbide zibila (Aramaion)
<p>Kode Zibilaren 537. artikulua</p> <p>Ageriko eta etengabeko zortasunak eskuratzen dira titulu bidez edota hogeituroko preskripzioaren bidez.</p> <p>539. artikulua</p> <p>Titulu bidez bakarrik eskura daitezke agerikoak ez diren zortasun etengabekoak eta etendako zortasunak, azken horiek agerikoak izan zein izan ez. (hemen sartzen da bide-zorra)</p>	<p>3/1992 Foru legearen 128. atala</p> <p>Bide-zorra tituluz edo hogeituroko erabilpenez eskuratzen da.</p>

9.- Etorkizuna: Aramaio, herri foruduna

Esandakoaren lekuko, beraz, Aramaio herriaren nortasuna, eta nortasun horren ezaugarria, foru-zuzenbide zibila.

Foru-zuzenbide zibila, bestalde, eguneroko kontua da aramaioarren bizitzan, testamentua egiteko unean, oinordetza kontuetan, baserriko eta etxeetako eskualdaketa gaietan eta senar-emazteen arteko ondasunak arautzeko aldietan.

Eguneroko kontu hori, alabaina, ezezaguna da askorentzat Aramaion bertan, herritarren zein eragile juridikoak izan. Komeni da, beraz, egoera horren jakitun izan eta foru-zuzenbidea gordetzea, bizirik eta erabilgarritasun osokoa baita egunotan ere.

Bestalde, aramaioarren eskarmentua eta forudunen eskarmentua da, izatez, aurrerabide sendoa, egun batean, foru-zuzenbide zibil hau izan dadin euskaldun guztien zuzenbidea, askatasun zibilaren adierazle bikaina baita eta euskaldunok historian zehar ondu dugun sistema juridikoa, gure premiei egokitua eta gaurkotua.

Hau da, hainbatez, Aramaion eta Euskal Herri osoan dugun erronka foru-zuzenbide zibilari dagokionez. Gure sustraiak ezagutu eta ezagutarazi lege moduan, hizkuntza mailan euskara bera ere sustatuz.

Begien bistakoa da, gaurkoa ikusita, bide onetik goazela. Segi dezagun, bada, aurrera!

Iturriak (webguneak):

- www.forulege.com
- www.avd-zea.com

Bibliografia (liburuak):

CELAYA, A. : *Ley sobre el Derecho Civil Foral del País Vasco*. Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales. Tomo XXVI. Madril: Edersa, 1997.

JADO VENTADES, R. : *Derecho civil de Vizcaya*. Bilbo: Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia, bigarren argitaraldiaren (1923) faksimilea, 2004.

Andres Urrutia